

Estatu Batuek eta bere aliatuek Irak hegoaldea bonbardatu dute

Hiru orduko eraso burutu dute EEBB, Frantzia eta Erresuma Batuko hegazkinak

EEBB eta indar aliatuek azken egun hauetan Saddam Husseini egin dizkioten mehatxuak ez dira hutsalak gertatu. George Bushen Iraki erasotzeko agindua eman zuen atzo arratsaldean, eta berehala aieratu ziren Golkoko dauden hegazkin aliatuak, Irakeko gune estrategikoak bonbardatzeko.

DONOSTIA

Iraken aurkako eraso aliatua abian dela berretsi ahal izan zen atzo arratsaldean, EEBBetako CNN telebista kateak Etxe Zuriko iturri ofizialak aipatuta lehenik eta Londresko Gobernuak konfirmatuta ondoren. Berri hauen arabera, Erresuma Batuko sei 'Tornado' hegazkin, Frantziako sei 'Mirage' eta Estatu Batuetako berrehun hegazkinetik gora aritu ziren hiru ordu inguru iraun zuen operazioan.

Berrehun 'Tomahawk' kruzero misil indartsu ere Pertsiar Golkoko erasorako prest dituzte Estatu Bautek, Erresuma Batuek eta Frantziak. Nazio Batuek Golkoko gerra ostean emandako aginduak behin eta berriro bortsatzearen erantzun modura, komunikabide guneak, aerodromoak eta arma kimikoekin zerikusia duten industri gune zehatzak bonbardatu zituzten, atzo Washingtonen jakin ahal izan zenez.

Lawrence Eagleburger Etxe Zuriko bozeramaileak, Iraken jarreraren aurrean «erantzuna beharrezkoa» zela iragarri ondoren, George Bush EEBBetako jarduneko lehendakariak ez zuen denbora asko behar izan berria ofizialki iragartzeko: Pertsiar Golkoko inguruan alerta egoeran dauden indar militar estatubatuarrek Iraki erasotzeko agindua jasotzen atzo arratsalderako.




Um Qasr hiriko instalakuntzak desegiteko arduradun irakiarrak lanean.

AP

✓ Iraken aurkako operazioak Bushen zuzendaritza izango du, bere agintaldia azken egunetan dagoen arren.

Iraken aurkako operazioak Bushen zuzendaritza izan zuen, bere agintaldia azken egunetan den arren. Dena den, Warren Christopher, astebete barru Etxe Zuriko bozeramaile izango dena behin-behineko lehendakaria eta lehendakari hautatua elkarlanean ari zirela zehaztu zuen, Bushen erasotzeko agindua eman zuela iragarri eta gutxira.

ALIATUAK ERE ERASOAN Irak bonbardatzeko erabakia Golkoko herrialde aliatuekin kontsultan aritu ondoren hartu



George Bush.

zuten atzo Etxe Zuriko arduradunek. Agindua Washingtonen eman duen arren, Golkoko gerran EEBBek aliatu izan zituen Erresuma Batuek eta Frantziak erasorako prest daudela jakinarazi zuten, balizko eraso ordu batzuen kontua zela susmatzen hasi zenerako.

✓ Erasoa 200 hegazkin iparramerikar, sei Tornado britainiar eta beste sei Mirage frantziarrak hartu zuten parte.

Pierre Joxe, Frantziako Defentsa ministroak, Iraken aurkako operazio militarrean «edozein momentutan» parte hartzeko prest zegoela jakinarazi zion atzo 'Europa-1' irrati kateari. Douglas Hurd Erresuma Batuko Atzerri ministroak ere Iraken probokazioek «behar duten aurkako neurriak» izango dituztela azaldu zuen.

Atzo artean balizkoa zen eraso gauzatzeko aukerak indartu egin ziren, Irakiar talde batek Kuwaiteko muga laugarrenez gauditutako zutela jakin zenean.

Guatemalako errefuxiatuen aberriratzea 15 egun atzeratu da

GUATEMALA

Mexikon errefuxiatuta egondako Guatemalako herritarren lehen taldearen aberriratzea hamabost egun atzeratzea erabaki zen herenegun, errefuxiatuen ordezkariak, Guatemalako Gobernu eta Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusia (UNHCR) akordio batera iritsita.

Mexikon dauden errefuxiatu guatemalarren ordezkariak aberriratzea gehienez 15 egunetan burutzea onartu zuten, UNHCR eta Guatemalako agintariek errefuxiatuak bide interamerikarretik igartzeko baimena eman ondoren. Orain artean, baztertu egin zuen Gobernuak bide hau eta oihanetik barrena zihoana proposatu.

PAEk ez du bake negoziaketetan kontzesiorik egingo

DONOSTIA

Palestinaren Askapenerako Erakundeak (PAE) ez du Ekialde Erdiako bake negoziaketetan jarraituko, Israelek deportatutako 400 palestinarren lurralde okupatuetara itzultzeari eragozpenak jartzen segitzen duen bitartean. PAEko bozeramaile batek atzo adierazi zuenez, «Israelek atzeriratu izulera onartu edo NBEko Segurtasun Kontseiluak Tel Avivetik 799 ebazpena ez beteazteagatik zigorrak ezarri ezean, ezin izango diegu elkarrizketei berrekin».

Simon Peres Atzerri ministroak atzo berretsi zuen Israelek ez duela bere jarri aldatuko palestinarren deportazioaren inguruan, «hori integristei saria ematea litzatekeelako».

«Kuwait berreskuratzeko gertu»

BAGDAD

George Bushen eraso egiteko agindua eman zuen eta Ali Hassan al Majid jeneralak, Irakeko Defentsa ministroak, bestalde, Indar Armatuak «iparraldetik hegoalde muturreraino lurralde guztiak berreskuratzeko gertu» zeudela adierazi zuen. INA agentziak aipatutako jeneralak adie-

razpen hauek egin zituen Saddam Husseini bidalitako mezuan, 'Bataila guztien Amaren' (Golkoko Gerra) bigarren urtemuga zela eta. Al Majidek «hegoaldeko muturra» berreskuratu beharra nabarmendu zuen, Kuwait hain zuzen, Bagdadeko Gobernuak Irakeko 19. probintziazat jotzen duena.

Kuwait berreskuratu beharra

Abdel Jaber Mohsenek, Hussein aholkulariak ere aipatu zuen atzo 'Al Iumhuriya' egunkariko iritzi artikuluan: «Kuwait Irakena da, eta berreskuratu egingo dugu EEBBek eta bere Segurtasun Kontseiluak pentsatzen dutenari jaramonik egin gabe». Mohsenek «errealitate historikoaren ezagupenik ez duen gerra kriminalizat» jo zuen Bush.



LEKEITIOKO UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzordearen 1992ko abenduaren 24eko akordioak dioenez, enkantera ateratzen da, Udalerri honetako Atea kalean asteazkenero izaten den Merkadiloko 15 zenbakiduneko salpostua. Berau jakitera ematen da, iragarki hau argitaratzen denetik 15 egun naturaleko epea ematen delarik honetan interesatuta dauden pertsonen euren eskaerak aurkez dituzten Udaltxe honetako Bulego Orokorretan goizeko 10etatik ordu 2ak arte.

Lekaiton, 1992ko abenduaren 31n ALKATEA



INTXAURRE

HERRIKO TABERNA

Intxaurre, 2 DURANGO